Zumaiako Udala

2018IERR0002-B19/0130

130/2019 ALKATETZA DEKRETUA

Zumaiako Udaleko Osoko Bilkurak 2019ko maiatzaren 17an onartu zuen hasierako izaeraz, Keretxudi udal baratze-parkea arautzeko Ordenantza eta 30 laneguneko agerraldi publikoaren ondoren, alegaziorik aurkeztu ez zenez, behin betiko izaeraz onartutzat eman zen.

Ordenantza argitaratu zen 2018ko uztailaren 26ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (144 zk)

Epea zabaldu zen, interesa zutenek, baratza erabiltzeko baimena eskatzeko. Epea amaitu ondoren, partzelen zozketa egin zen.

Baldintza guztiak betetzen zituzten eskatzaileek ez zituzten bete partzela guztiak, hau da 12 partzela libre gelditu ziren eta udalaren asmoa da partzela guztiak esleitzea.

Hori dela eta, hirigintzako legeriak eta arautegiak emandako ahalmena erabiliz,

ERABAKIA:

1.- Zumaiako Keretxudi udal baratze-parkean, partzela bat eskuratzeko interesa dutenek izena eman dezaten 2019KO OTSAILAREN 28RA arteko epea zabaltzen da.

2.- Eskaera Zumaiako udal erregistroan aurkeztu beharko da eta goian aipatutako Ordenantzan eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatu beharko da.

3.-Epea igarotzean, eskatzaileen artean, gelditzen diren partzelak zozkatuko dira.

Zumaia,

OIER KORTA ESNAL
Data / Fecha: 2019/02/12

Dokumentu kod./Cod. Documento	2018IERR0002-B19/0130	
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	**https://munigex.net/r/eu/81/AAAA3WED4.iAZF** 000.0081.AAAA3WED.4.iAZF	